

FUNTSEZKO ELKARTEAK

Gure funtsezko aliantzak Eskolak izango dira. Gure zerbitzua erabiliko duten familia ereduak aukeratutako eskola/ikastolak hurrengoak dira:

| | |
|----------------------------------|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| Montessori Gran Bilbao | Barakaldo |
| Dilylan Montessori | Bilbo Haurraren askatasunean, autonomia eta auto-garapenean oinarrituta dagoen hezkuntza metodoa. |
| Nevers | Durango Metodologia berritzaileetan sinesten duen kristau eskola. |
| Eguzkibegi ikastola | Galdakao Haurra bere osotasunean hartzen duen proiektua. |
| Mara-Mara | Sopela Pertsona, ume eta familia bakoitzaren erritmoa bilatuta, bizitza kalitate hobea lortzeko, jolas libre eta autonomorako ikaskuntza gunea. |
| Landabaso eskola aktiboa | Zalla Umeek haien gaitasunak erabat garatu ditzaketen tokia eta pertsona bakoitzaren erritmoak eta |
| Umerri eskola aktiboa | Durango diferentziak kontuan izaten diren tokia |
| Barraskilo eskola aktiboa | Laukiz |
| Haitzuri Hondar Eskola | Sopela Joko librearen bidez ikasteko espazio batean, haurren autonomia eta erritmo indibidualak errespetatzea. |

Eskolatan gure informazioa utziko dugu haur bakoitzak etxera eramateko.

Horrek gure zerbitzua ezagutzeko balioko digu.

Bestalde, eskolatan hezitzaileei adimen emozionalari buruzko oinarriko ikastaro bat eskainiko diegu haurren behar emozionalak identifikatzen laguntzeko eta horrela, hezitzaileak haurren batek dituen beharrak asetu gabe daudela ikusten badu, gure informazioa eman diezaioke familiari. Horrela haurrak guregana bideratzen lagunduko digute.

Horretaz gain, herriko udaletxearekin ere aliantza bat sortuko dugu: Guk urtero familiei zuzendutako adimen emozionalaren inguruko tailerrak dohainik antolatuko ditugu. Trukean, udalak lokala prezio merkeagoan alokatuko digu.

Gure artean ere aliantzak sortu ditugu, azken finean haurren emozioak kudeatzen ikasteko gai desberdinen jakintzak izatea garrantzitsua baita, hala nola, adimen emozionalari buruzko ikasketak dituen Laurak, psikologiako ikasketak dituen Meibh-ek, haur zein lehen hezkuntzako ikasketak dituen Jaionek, eta Psikopedagogiako ikasketak dituen Danelek, tresna desberdinak eskainiko ditugu haur edota familiekin egingo ditugun saioak gidatzeko.

Bestalde, Danele psikomotrizitatean jakituna izatea saioak bideratzeko lagungarria izan daiteke.

Horretaz gain, Laurak marketinean goi mailako zikloa duenez, informatikan trebea den Meibh-ekin web-gune bat sortzeko aukera izango dugu zerbitzu horretan dirurik inbertitu gabe.